



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko urriaren 9a

108. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Interpelazioa, etxebizitzaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Mikel Buil García jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako udalekiko koordinazio eta ardurakidetzaren foroaren bultzatzea eta arautu dezan Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioaren bidez, kultur politikak taxutzea bermatzeko xedez. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentariaren elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Castejongo Trenasa enpresa ixtea eta enpresa horretako langileak kaleratzea ekiditeko esku har dezan. María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Droga-mendekotasunari eta adikzioei buruzko III. Plana eguneratu dezan, Nafarroako gazteriaren errealitateari egokitzeko. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentariaren elkarteak aurkeztu dute (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da behar diren tresnak eta baliabideak gaitu ditzan Irisgarritasun Unibertsalari buruzko ekainaren 14ko 12/2018 Foru Legea garatzeko. Laura Aznal Sagasti andreak aurkeztu du (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Tuterako eta hango eskualdeko osasun barrutian anbulantzia berezitu bat para dezan COVID-19a izan dezaketela uste den edo COVID-19a daukatela baieztatuta dagoen pazienteentzat. Osasun Batzordeak onetsia (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentuak premiatzen da osasun laguntza egokia eman diezaien COVID-19aren osteko patologia duten pazienteei. Osasun Batzordeak onetsia (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019tik 2030era bitarteko plan zuzendariaren ezarpena azkartu dezan. Lurralde Kohesiorako Batzordeak ezetsi du (9. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, 2020-2021 ikasturteko lehen hiru asteetan konfinatutako ikasleei buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, Murchanteko “Mardones y Magaña” Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoaren egoerari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, Trenasa enpresak jasotako dirulaguntza publikoei eta Vectia enpresan egindako inbertsioei buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, Foruzaingoan 2020rako egingen den lan-eskaintza publikoari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Europaren egungo politiketek giza eskubideak errespetatzeari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Vectia Mobility SLU eta Solaris Bus Ibérica SLU enpresek Castejongo planta dela-eta jasotako onura fiskalei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Castejongo Trenasa enpresak jasotako onura fiskalei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Hondakinen Planari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak sustatutako Gaitasun Digitalen Garapenerako Talka Planari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluan Enplegu Planaren prestaketarako aurreikusitako mahaiei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (16. or.).
- Galdera, Enplegu Plana prestatzeko egutegiari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (17. or.).
- Galdera, iraupen luzeko langabezian dauden pertsonen kontrataziorako deialdiari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (17. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeari buruzko Kontingentzia Plana aldatzea, Mahaiaren 2020ko urriaren 5eko erabakiaren bidez onetsia (18. or.).
- Osoko bilkuren aretora publiko gisa joateko gonbidatu-txartelen banaketa (24. or.).
- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko bost kideen hautaketa. Akats zuzenketa (24. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bategina aldatzeko proposamena (25. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, etxebizitzaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkezturiko interpelazioa, etxebizitzaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Kontuan izanik bizi dugun pandemia-egoera, etxebizitzaren arloko politika orokorrari buruzko interpelazioa aurkezten diogu Nafarroako Gobernuari.

Iruñean, 2020ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako udalekiko koordinazio eta ardurakidetzaren foro bultza eta arautu dezan Nafarroako Udalen Kontzejuen Federazioaren bidez, kultur politikak taxutzea bermatzeko xedez.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, NAFARROAKO PODEMOS AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako udalekiko koordinazio eta ardurakidetzaren foro bultza eta arautu dezan Nafarroako Udalen

eta Kontzejuen Federazioaren bidez, kultur politikak taxutzea bermatzeko xedez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute Osoko Bilkuran eztabaidatzeko: Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako udalekiko koordinazio eta ardurakidetzara foroa bultzatzea eta arautu dezan Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioaren bidez, kultur politikak taxutzea bermatzeko xedez.

COVID-19ak eragindako pandemiak krisi sanitario, sozial eta ekonomikoa ekarri du. Kultura ere ukitu du. Antzokiak, kultur etxeak nahiz gainontzeko kultur espazioak izan ziren neurri drastikoak hartu behar izan zituzten lehenak; halatan, ikuskitunak, musika jaialdiak nahiz kultur topaketak bertan behera gelditu ziren.

Kultura eta Kirol Departamentuak koordinazioa ezarri zuen Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioarekin, toki administratiboen komunikazioa errazteko izan zedin. Gainera, COVID-19arekin lotutako auzi guztietan elkarrekin lan egitean jarri zen azpimarra.

Talde horren helburuetako bat zen elkarrekin eta modu koordinatuan lan egitea kulturaren arloan deseskalatzearen fase ezberdinetan, Espainia-

ko Gobernuak iragan martxoaren 13an ezarri zuen konfinamenduaren ostean. Kultur jardueraren deseskalatzearen fase ezberdinei egokitu behar zitzaizkien.

Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legeak honako hau dio IV. tituluko 33. artikularen 4. apartatuko F letran: "Kulturaren arloko eskumena duen departamentuak Nafarroako udalerriekiko koordinazio eta ardurakidetzarako foro bat sortzea bultzatuko du, kulturaren arloko politiken artikulazioa bermatzeko".

Koordinazio foro horrek ongi funtzionatzen duela ikusita eta Kultur Eskubideei buruzko Legearen xedatutakoa betetz, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako udalekiko koordinazio eta ardurakidetzara foroa bultzatzea eta arautu dezan Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioaren bidez, kultur politikak taxutzea bermatzeko xedez.

Iruñean, 2020ko irailaren 25ean

Foru parlamentariak: Carlos Mena Blasco, Pablo Azcona Molinet, Ainhoa Aznárez Igarza eta María Luisa De Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Castejongo Trenasa enpresa ixtea eta enpresa horretako langileak kaleratzea ekiditeko esku har dezan.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Castejongo Trenasa enpresa ixtea eta enpresa horretako langileak kaleratzea ekiditeko esku har dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Garapen Ekonomiko eta Enpresarietako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoaren eledun María Luisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Irailaren 25ean, Trenes de Navarra SA enpresak (Trenasa) langileen batzordeari jakinarazi zion enplegu erregulazioko espediente bat abiaraziko zuela, produkzioaren nahiz antolakuntzaren arloko arrazoia direla-eta.

Enplegu erregulazioko espediente horrek plantilla osoari eraginen lioke; kaleratze kolektibo bat izanen litzateke, gutxienez ere 110 langile eta haien familiak ukituko lituzkeena Erriberan, langabeziak gogor zigortutako eremu batean. Kolpe latza Castejongo herriarentzat eta inguruko herrientzat.

Plantillaren bolumenagatik, Castejongo enpresarik garrantzitsuena da Trenasa, bai eta Erriberako garrantzitsuenetako bat ere, eskualdeko herri askotan, eta are Nafarroako beste batzuetan ere, sortzen duen enplegua ikusita. Egun, 110 lanpostu hartzen ditu zuzenean, eta 200eraino heldu zen aurreko hilabete eta urteetan. Egoitza Beasainen daukan CAF euskal multinazionalen enpresa horrek tren-material birakaria fabrikatzen du batik bat. Aurten, ekainean, inoizko eskaera-zorrorik handiena zeukan (9.000 milioi euroko baliokoa), eta ez zeukan arazo ekonomikorik. 2019ko mozkin-marjina handia izan zen; izan ere, akziodunen artean banatu zen igoera, zeina % 10ekoa izan baitzen.

Ezagutu diren azken datuen arabera, CAFek % 47 hobetu ditu bere irabaziak, 63 milioi eurokoak izateraino, Nafarroaren diru publikoko dirulaguntza handiekin Polonian egiten ari diren autobusak fabrikatzeari esker, eta ez Castejonen, irabaziak Erriberan eta Nafarroan utzita.

Enpresaren industria-jarduerak iraun duen hamalau urteotan, plantillak zazpi aldiz pairatu du iragarri den azken iraungitze EEE hau barne-lan-erreformen aplikaziorik anker eta latzena. Beste behin ere, eta jada zazpi dira zortzi urtean:

jarduera aldi baterako eteteko hiru espediente (2012, 2015 eta 2020), jarduera iraungitzeko hiru espediente (2012, 2015 eta 2020ko hau) eta lanbaldintzen funtsezko aldaketa bat, plantillaren soldata % 14 jaitea ekarri zuena. Hori da lan-erreformak negozio-ahalmena duten enpresei aplikatzen uzten dien hondamena, luzamendutan ibili gabe indargabetu beharreko lan-erreforma.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Castejongo Trenasa enpresa ixtea eta enpresa horretako langileak kaleratzea ekiditeko esku har dezan eta egin beharreko zuzemenak egin ditzan CAF enpresak Castejongo produkzioaren aldeko apustua egin dezan, horri euts diezaion eta, horrenbestez, lanpostuak galtzea eragotz dadin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, baldin eta azkenean lortzen ez bada Castejongo Trenasaren planta irekita mantentzea, jasotako diru publiko guztia itzultzea exigi dezan, horrek ahalbidetu baitu lan-karga guztia kanpoan kontratatzea; halaber, Nafarroako Gobernua premiatzen du, kasua bada, berehala utz diezaion Vectiaren akziodun izateari.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio Sodenak Trenasari eta Vectiari emandako dirulaguntza publiko guztien zenbateko eta kontzeptuei buruzko informazio guztia eman diezaion.

4. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuari premiatzen du Alderdi Popularraren ekimenez 2012an onetsi zen lan-erreforma albait lasterren indargabetu dezan, premiazkoa baita, negozio-ahalmena duten enpresek produkzio-jarduera ixtea/etetea ahalbidetzen du eta.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari, Estatuko Gobernuari eta Trenasa enpresaren zuzendaritzari igorriko die erabaki hau.

Iruñean, 2020ko irailaren 27an

Foru parlamentaria: María Luisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Droga-mendekotasunari eta adikzioei buruzko III. Plana eguneratu dezan, Nafarroako gazteriaren errealitatera egokitzeko.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK ETA NAFARROAKO PODEMOS AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Droga-mendekotasunari eta adikzioei buruzko III. Plana eguneratu dezan, Nafarroako gazteriaren errealitatera egokitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen dugun talde parlamentariook Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkezten dugu, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko: Nafarroako Gobernua premiatzen da Droga-mendekotasunari eta adikzioei buruzko III. Plana eguneratu dezan, Nafarroako gazteriaren errealitatera egokitzeko.

Otsailaren 14an "Estudes" azterlana argitaratu zuen Drogen eta Adikzioen Espainiako Behatokiak. Azterlanetik datu atsekabegarriak ondorioztatzen dira 14 urtetik 18 urtera bitarteko nafar gazteen arteko alkoholaren kontsumoari eta adikzio berriei dagokienez.

"Estudes" azterlanaren arabera, 13,8 urterekin hasten da, batez beste, alkoholaren kontsumoa, eta gazteen % 42k alkohol ugari hartzen dute, Espainian batez beste kontsumitzen dena baino 10 puntu gehiago hain zuzen ere. Inkestan galdeketa egin zaien 14 urteko gazteen % 33k onartu zuen inoiz mozkortu izana.

Txostenaren arabera, 14,1 urterekin hasten da, batez beste, tabakoaren kontsumoa, eta kanabisarena, berriz, 14,9 urterekin. Inkestan parte hartu duten gazteen % 75ek dioenez, kanabisa "lortzen erraza" da.

Datu horiek gutxi izanen ez balira, "Estudes" azterlanean luze eta zabal aztertzen dira adikzio berriak; esaterako, Internet eta joko presentziala eta on-line jokoa, zeina igo egin baita Nafarroan egindako azken behatokiaren aldean.

Gaur den egunean, 14 urtetik 18 urtera bitarteko gazteen % 22k onartzen du modu konpultsibotan erabiltzen duela Internet, eta genero-arrakala bereziki handia da kasu horretan, emakumeek 10 puntuko aldea ateratzen baitiete gizonezkoiei. Gizonezko nafar gazteen ia % 40k bisitatu dituzten astero helduendako edukiak dituzten web-orriak (sexua, indarkeria...); emakumezko nafar gazteen kasuan, aldiz, apenas % 6k.

On-line jokoari eta joko presentzialari dagokienez, datuek ere gora egin dute. Nafar gazteen ia % 30ek jotzen du joko presentzialera, eta % 11k, berriz, on-line jokora, non kirol-apustuak diren gehien egiten direnak, publizitatearen eta eskaintzaren erakarmenaren eraginez, adituen esanetan. Nafar gazteen % 18k baino gehiagok egiten ditu kirol-apustu presentzialak eta on-line apustuak, eta jokabide hori areagotu egin da COVID-19aren pandemiaren ondorioz.

Datu horiek guztiak berretsi egiten dute beharrezkoa dela administrazio publikoek esku hartzea adikzioen arloan prebenitzeko, kontzientziatzeko eta jarduteko, Nafarroako Gobernuko departamentuek batera eta zeharkakotasunez arituta, datu horiek gure gazteen artean gehiago areagotu ez daitezten.

Drogei eta Adikzioei aurrea hartzeko III. Plana (2018-2020) nafar gazteen artean drogei eta adikzioei nola aurrea hartu behar zaien jakiteko ildo nagusiak ezartzen ditu. Baina plan hori taxutzeko erabili ziren datuek okerrera egin dute plana taxutu zenetik hona. Azterlanean, Gazteak eta Osasuna Inkestako datuak erabili ziren, zeina 2014an egin baitzen Nafarroan kontsumoa noiz hasten den jakiteko. Tabakoaren kasuan, 15,4

urterekin; alkoholaren kasuan, 14,7 urterekin; eta kanabisaren kasuan, 16,1 urterekin. Azken inkestako datuekin alderatuz gero, kontsumoa potentzialki handitu da.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, kontuan hartuta “Estudes” azterlana eta COVID-19tik heldu diren errealitate berriak, Droga-mendekotasunari eta adikzioei buruzko III. Plana eguneratu dezan, Nafarroako gazteriaren errealitatera egokitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarri beharreko baliabideak jar ditzan eguneratze hori egiteko kasuan-kasuko berriazko programen, sentsibilizazio kanpainen eta nafar gazteei zehazki bideratutako beste programa batzuen bidez.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aldaketa horiek Nafarroako Gazteriaren Institutuaren oniritziarekin egin daitezen, hori baita organo eskuduna eta zeharkakoa Nafarroan gazteriaren arloko politiketan.

Foru parlamentariak: Carlos Mena Blasco, Javier Arakama Urtiaga eta Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren tresnak eta baliabideak gaitu ditzan Irisgarritasun Unibertsalari buruzko ekainaren 14ko 12/2018 Foru Legea garatzeko.

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behar diren tresnak eta baliabideak gaitu ditzan Irisgarritasun Unibertsalari buruzko ekainaren 14ko 12/2018 Foru Legea garatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publi-

koko eta Barneko Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2016/2102 (EB) Zuzentarauak –2016ko urriaren 26koa, sektore publikoko erakundeen webguneen eta gailu mugikorretako aplikazioen irisgarritasunari buruzkoa– honako hau dio 8. artikuluan:

“1. Europar Batasuneko estatuak aldi-aldi egiaztatuko dute webguneak eta gailu mugikorretarako aplikazioak 4. artikuluan ezarritako irisgarritasun baldintzak betetzen dituztela, artikuluko honen 2. apartatuan aurreikusten den jarraipen-metodologian oinarri.

2. Betearazteko ekintzak eginen ditu Batzordeak, non jarraipen-metodologia bat ezarriko baita webguneen nahiz gailu mugikorretarako aplikazioen adostasunaren jarraipenerako, 4. artikuluan ezarritako irisgarritasun baldintzekin. Metodologia hori gardena, transferigarria, konparagarria, erreproduzigarria eta erabilerraza izanen da. Betearazteko ekintza horiek 11. artikuluko 3. apartatuan aipatzen den azterketa-prozedurarekin bat eginen dira. Beranduenez ere, 2018ko abenduaren 23an”.

Irisgarritasun Unibertsalari buruzko ekainaren 14ko 12/2018 Foru Legea aho batez onetsi zen iragan legegintzaldian Nafarroako Parlamentuan, 2010ekoa ordeztzeko.

44. artikuluan honako hau ezartzen du enplegua dela-eta:

“1. Foru Komunitateko Administrazioak, bere eskumenen esparruan, desgaitasuna duten pertsonen laneratzea sustatuko du.

2. Nafarroako administrazio publikoek behar diren neurriak hartuko dituzte desgaitasuna duten pertsonen berdintasuna berma dadin enplegu publikoan sartzeko eta barne igoeretan, bai langile finkoak hartzeko deialdietan bai aldi baterako kontratazioan, aplikatzekoa den araudian ezarritakoari jarraikiz.

Horrekin batera, enplegu lagunduen arloko neurriak ezarriko dira, desgaitasuna duten pertsonak lanpostu eskuratura egokitzen laguntzeko beharrezkoa den kasuan”.

Nafarroan, une honetan, ez da hori betetzen ari. Zenbait kasutan, desgaitasuna duten pertsonen ez zaie lanpostua beren berariazko beharri-zanetarako egokitzen lanpostuarekin lotutako jar-

duerak garatu ahal izan ditzaten, zeinetara kontratazio-zerrenden bidez sartu baitira, dela teknologiarik zor zaizkion arazoengatik, dela Administrazioaren departamentu jakin batzuetan erabiltzen diren sistema eta aplikazio informatikoengatik.

Hori guztia dela eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du al bait lasterren gaitu ditzan gaitu beharreko tresnak, edota bideratu beharreko baliabideak bideratu ditzan, halako moduan non lege hau garatzean inork ere ez dezan arazorik edo eragozpenik izan Nafarroako Administrazio Publikoko ezein departamentutan lan batean jarduteko, lanpostu publiko bat lortzean ekitate nahiz irisgarritasun printzipioak betez hartara.

Iruñean, 2020ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Tuterako eta hango eskualdeko osasun barrutian anbulantzia berezitu bat para dezan COVID-19a izan dezaketela uste den edo COVID-19a daukatela baieztatuta dagoen pazienteentzat.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2020ko irailaren 30ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Tuterako eta hango eskualdeko osasun barrutian anbulantzia berezitu bat para dezan COVID-19a izan dezaketela uste den edo COVID-19a daukatela baieztatuta dagoen pazienteentzat”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du anbulantzia berezitu bat para dezan Tuterako eta hango eskualdeko osasun barrutian COVID-

19a izan dezaketela uste den edo COVID-19a daukatela baieztatuta dagoen pazienteentzat.

2. Nafarroako Parlamentuak departamentua premiatzen du al bait lasterren ezar ditzan Erriberan osasun-garraio zerbitzu optimoa bermatzeko ezarri beharreko prozedurak, gainerako kate asistentzialaren arabera, osasun-laguntza segurua emanen duena eta baldintza duinak bermatuko dituena.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du osasun-garraioa berriz ere publikoa izateko ezarri beharreko prozedura ezar dezan”.

Iruñean, 2020ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da osasun laguntza egokia eman diezaien COVID-19aren osteko patologia duten pazienteei.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2020ko irailaren 30ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da osasun laguntza egokia eman diezaien COVID-19aren osteko patologia duten pazienteei”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du:

1. Patologia berri hori –COVID-19aren osteko gaixotasuna– iraupen luzeko gaixotasun gisa aitortzea.

2. Kalitatezko osasun laguntza ematea, oinarriko osasun laguntzarekin koordinatutako diziplina anitzeko kontsulten bidez.

3. Patologia berri horretan ikertzeko inbertitzea”.

Iruñean, 2020ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019tik 2030era bitarteko plan zuzendariaren ezarpena azkartu dezan.

LURRALDE KOHESIORAKO BATZORDEAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Lurralde Kohesiorako Batzordeak, 2020ko irailaren 30ean egindako bileran, honako mozio hau ezetsi du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019tik 2030era bitarteko plan zuzendariaren ezarpena azkartu dezan”. Mozioa Miguel Bujanda

Cirauqui jaunak aurkeztu zuen eta 2020ko irailaren 25eko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, 2020-2021 ikasturteko lehen hiru asteetan konfinatutako ikasleei buruzkoa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkezturiko galdera, 2020-2021 ikasturteko lehen hiru asteetan konfinatutako ikasleei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

- Nafarroako ikastetxeetan zenbat ikasle konfinatu dira, guztira, 2020-2021 ikasturtearen lehen-dabiziko hiru asteetan (irailaren 25era bitarte) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan? Eman datuak sarearen, ikastetxearen, etaparen eta mailaren arabera bereizirik.

Iruñean, 2020ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

Galdera, Murchanteko “Mardones y Magaña” Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoaren egoerari buruzkoa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkezturiko galdera, Murchanteko “Mardones y Magaña” Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoaren egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion, Murchanteko Mardones y Magaña Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoaren egoera ikusita:

- Zenbat ikasle daude A ereduari ikastetxe horretan? Eman datuak mailaren eta taldearen arabera bereizirik.

- Kontuan izanik ikastetxean D eta A ereduak daudela, Ikuskapen Zerbitzuak zer antolakuntza baimendu zuen hasiera batean Haur eta Lehen

Hezkuntzako ikasgelei begira? Departamentuak ikastetxetara igorritako Kontingentzia Planeko jarraibideak betetzen al zituen proposamen horrek?

- Behin ikasturtea hasita, zer antolakuntza jarri da abian A ereduari ikasleak biltzeko? Zer dela eta egin da aldaketa? Zenbat ikasleri eragiten die aldaketak maila eta talde bakoitzean?

- Familiei nola eman zaie horren berri? Familiek neurriaren aurkako alegaziorik aurkeztu al dute departamentuan? Zenbat familiak aurkeztu dituzte alegazioak?

Iruñean, 2020ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

Galdera, Trenasa enpresak jasotako dirulaguntza publikoei eta Vectia enpresan egindako inbertsioei buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkezturiko galdera, Trenasa enpresak jasotako dirulaguntza publikoei eta Vectia enpresan egindako inbertsioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentariaren elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak idatziz erantzun ditzan.

Ireki zenetik 2006ra bitarte Trenasa enpresak jasotako dirulaguntza publikoek zenbat egiten dute? Eman datuak, mesedez, daten eta zenbatekoen arabera bereizita.

Vectia enpresan egindako inbertsio publikoek (dirulaguntzak, partaidetzak, abalak...) zenbat egiten dute? Eman datuak, mesedez, daten eta zenbatekoen arabera bereizita.

Iruñean, 2020ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, Foruzaingoan 2020rako eginen den lan-eskaintza publikoari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Foruzaingoan 2020rako eginen den lan-eskaintza publikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu dadin eta Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

Azken egunotan hedabideen bitartez ezagutu dugu Gobernuak zer lan-eskaintza publiko aur-

keztu dien Funtzio Publikoaren Mahai Orokorrean ordezkaturik dauden sindikatuei. Proposamen horren arabera, lan-eskaintza publiko horretan Foruzaingorako 45 agente-lanpostu sartuko lirateke.

Gauzak horrela, honako hau jakin nahi dugu:

Zenbat foruzainek osatzen dute egun Foruzaingoaren plantilla bere langile guztiak kontuan hartuta (maila ezberdinetako agenteak eta agenteak)?

Iragarritako 45 lanpostu horietatik, zenbat dagozkie agenteen erretiroei eta zenbat Foruzaingoaren plantilla egonkortzeari?

45 agente horiek jabetza hartzen dutenean, zenbat faltako dira Foruzaingoaren plantillan Segurtasun Batzordean 2009an adostutako 1.200eko kopurura iristeko?

Gobernuak ba al du asmorik aparteko lan-eskaintza publikorik egiteko (berrezarpen-tasa dela-eta urtero egin beharrekotik aparte), Segurtasun Batzordean 2009an adostutakoaren arabera 2012an beteta egonen litzatekeen 1.200eko kopurura iristeko?

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Europaren egungo politiketik giza eskubideak errespetatzeari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Europaren egungo politiketik giza eskubideak errespetatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

1.- Europaren egungo politikak giza eskubideak kolpatzen eta urratzen dituztela uste al duzu?

2.- Errefuxiatuen egoera dela-eta genozidioa egiten ari dela uste al duzu?

3.- Europa arlo horretan politika supiztaileak baliatzen ari dela uste al duzu?

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, Vectia Mobility SLU eta Solaris Bus Ibérica SLU enpresek Castejongo planta dela-eta jasotako onura fiskalei buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Vectia Mobility SLU eta Solaris Bus Ibérica SLU enpresek Castejongo planta dela-eta jasotako onura fiskalei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, idatziz erantzun dakion:

Zer zerga-onura (I+G+b jarduerengatikoen karia, inbertitzeagatikoen karia, bestelako karia...) eta zer zenbatekoak aplikatu dituzte Vectia Mobility SLU eta Solaris Bus Ibérica SLU enpresek, azken hamar urteotan, sozietateen gaineko zergaren aitorpenetan Castejongo plantari dagokionez?

Iruñean, 2020ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Castejongo Trenasa enpresak jasotako onura fiskalei buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Castejongo Trenasa enpresak jasotako onura fiskalei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hau aurkeztzen dio Legebiltzarreko Mahaiari, idatziz erantzun dakion:

Zer zerga-onura (I+G+b jarduerengatiko kenkariak, inbertitzeagatiko kenkaria, bestelako kenkariak...) eta zer zenbatekoak aplikatu ditu Castejongo Trenasa enpresak, azken hamar urteotan, sozietateen gaineko zergaren aitorpenetan?

Iruñean, 2020ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Nafarroako Hondakinen Planari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Hondakinen Planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkeztzen dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Indarrean dagoen Nafarroako Hondakinen Planaren 6.3.3.1.4 apartatuak –"Etxeko nahiz merkataritzako hondakinen tratamendu-plantetako

errefusatik heldu diren hondakin birziklaezinak"– honako hau dio:

«Indarrean dagoen Estatuko Hondakinen Planean (FEMAR 2016-2022) aukera ematen da gehienez ere % 15era bitarteko energia-balorizazio helburuak ezartzeko, udal hondakinen tratamenduko instalazioetatik heldu diren errefusen eta material birziklaezinen kasuan.

Kontuan hartuta:

- Nafarroan egiten ari den kudeaketa, herritarrek bilketaren arloan egiten ari diren ahaleginarekin, zeinari esker birziklatze-maila handia lortu ahal izan baita.

- Hierarkiaren goiko mailetan aurrera egite aldera plan honetan ezarritako neurri garrantzitsuak; esaterako, berrerabiltze eta birziklatze aurreraturako prestatzea, Hondakinen Legean nahiz FEMAR-Estatuko Hondakinen Planean ezarritakoarekin bat, non adierazten baita modu aktiboagoan sustatu behar direla hierarkiaren kudeaketa-aukera lehenetsiak, zeinak, bestalde, ezarritako prebentzio eta birziklatze helburuak betetzea ahalbidetuko baitute.

- Nafarroan errefusa-plantetan eginiko auditoriak –aurreko apartatutan horien aipamena egin

da jada–, zeinetan zalantzak adierazten baitira horietan lortutako errefusen kalitatea dela-eta teknologia horien bidez erabiltzeko, ingurumenerako nahiz pertsonen osasunerako erabilera seguru bat bermatzeari dagokionez.

- parte hartzeko prozesuan zehar jasotako ekarpenak, zeinetan eskatu baita hondakin horien energia-balorizazioaren ordez balorizazio material-eko beste molde batzuk bila daitezen eta, finean, zabortegean ezaba daitezen.

Planak ez du Estatuko Hondakinen Planean energia-balorizazioa dela-eta adierazten den aukeraren aldeko hautua egin.

Horren ordez, prebentzioa, berrerabilpenerako prestaketa eta bilketa berezitua sustatzeaz gain, helburuak eta neurriak jasotzen dira etxeko hondakinen tratamendu-plantetako errefusetatik heldu diren hondakin birziklaezinen balorazioaren alternatibetan aurrerabidea egiteko energia-balorizazioaz bestelako bide batzuen bidez; adibidez, birziklatzea eta materialen araberako balorizazioa (errepideak eraikitzea, parkeak, hiri-altzariak, eta abar). Halatan, Planak materialen balorizatorako gehieneko helburu bat ezartzen du 2027rako, teknika tradizional edota emergenteen bidez, etxeko nahiz merkataritzako hondakinen % 75koa hain zuzen ere, eta gainontzeko % 25, tratamendu-

plantetan balorizatu ezin diren errefusei dagokiena, zabortegean ezabatzea».

Gauzak horrela, honako hau jakin nahi dugu:

Gobernua bat al dator Hondakinen Planean aipatutako aukeraren baztertea mantentzeko, alegia, Udal hondakinen tratamenduko instalazioetatik heldu diren errefusen eta material birziklaezinen kasuan gehienez ere % 15era bitarteko energia-balorizazioko helburuak ezartzeko aukera, udal hondakinen tratamenduko instalazioetatik heldu diren errefusen eta material birziklaezinen kasuan?.

Hala baldin bada, zure Gobernuak mantendu egiten al du udal hondakinen nahiz material birziklaezinen tratamendurako instalazioetatik heldu diren errefusak Nafarroan errausteari emandako ezetza?

Gobernuak orobat errefusatzen al du udal hondakinen nahiz material birziklaezinen tratamendurako instalazioetatik heldu diren errefusek Nafarroatik kanpo energia-balorizazioa edukitzea (esate baterako, Bizkaiko edo Gipuzkoako erraustegietan)?

Iruñean, 2020ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak sustatutako Gaitasun Digitalen Garapenerako Talka Planari buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak sustatutako Gaitasun Digitalen Garapenerako Talka Planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari María Isabel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zertan da Nafarroako Enplegu Zerbitzuak sustatutako Gaitasun Digitalen Garapenerako Talka Plana? Zer egin da orain arte? (zehaztu egin den ekintza bakoitzaren kostua, zer entitatek egin duen, onuradun-kopurua, onuradunen profila, non egin den eta ea presentziala izan den ala ez). Zer geratzen da egiteko? (horien egutegia)

Iruñean, 2020ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluan Enplegu Planaren prestaketarako aurreikusitako mahaiei buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluan Enplegu Planaren prestaketarako aurreikusitako mahaiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari María Isabel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak idatziz erantzun dezan:

Zer mahai bilduko dira eta zer edukirekin Elkarrizketa Sozialaren Kontseiluaren esparruan, Enplegu Plana prestatze aldera? Zer epetan aurreikusten duzue mahai horiek biltzea?

Iruñean, 2020ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, Enplegu Plana prestatzeko egutegiari buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, enplegu plana prestatzeko egutegiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari María Isabel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer egutegi darabil Enplegu Plana taxutzeko eta onesteko? Eragile ekonomiko eta sozialekin hitzartu al da?

Iruñean, 2020ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, iraupen luzeko langabezian dauden pertsonen kontrataziorako deialdiari buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, iraupen luzeko langabezian dauden pertsonen kontrataziorako deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari María Isabel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozietako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Iraupen luzeko langabezian dauden pertsonen kontrataziorako deialdia malgutu zen, 45 urte iza-tearen betekizuna kenduta eta COVID-19aren krisian zehar langabeziara joandako pertsonentzako kontratu mugagabeak edo iraupen luzekoak egiteko pizgarriak handituta. Noiz egin zen malgutze hori? Handitze horri aurre egiteko zenbatekorik bideratu al da berariaz? Hala baldin bada, zenbat diru bideratu da?

Iruñean, 2020ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeari buruzko Kontingentzia Plana aldatzea, Mahaiaren 2020ko urriaren 5eko erabakiaren bidez onetsia.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1.- Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeari buruzko Kontingentzia Plana aldatzea, ondoren aipatzen den moduan:

“Bosgarrena. - Etendako jarduerak.

1. Etendako jarduera guztiei berriro helduko zaie, ikasleek egoitzara egiten dituzten bisitei izan ezik, horiek bertan behera geratu baitira. Nafarroako Parlamentuak antolatzen dituen ekitaldi guztietan bermatu beharko da Legebiltzarraren areto bakoitzaren gehieneko edukiera betetzen dela eta metro eta erdiko pertsonen arteko distantzia errespetatzen dela.

2. Osoko Bilkuretara gonbidaturiko publikoari buruz honako hau aintzat hartu beharko da:

- Bertaratzen ahal direnen gehieneko kopurua ezarriko da, kontuan hartuta ezin izanen dutela gainditu eremu horretan baimenduriko edukieraren % 75.

- Bertaratzen direnek eserita egon beharko dute eta pertsonen arteko segurtasun-distantzia bermatu beharko dute.

- Distantzia-irizpideak betetzen ez dituzten eserlekuak baliogabetuko dira.

- Beharrezkoak diren antolamendu-neurriak hartuko dira sarrera-irteerak era mailakatuan egin daitezzen.

Seigarrena.- Eraikinerako sarbidea.

1. Parlamentuaren egoitzara sartzeko baimenduta daudenak honako hauek dira: foru parlamentariak eta talde parlamentarioen zein parlamentarien elkartearen laguntzaileak, Lehendakartzaren eta Mahaiaren Kabineteko kideak, Parlamentuko langileak, jarduera parlamentarioarako beharrezko-

ak diren ikus-entzunezko zerbitzuetako teknikariak, garbiketa-langileak eta Legebiltzarraren funtzionamendu normala bermatzeko ezinbestekoak diren mantentze-lanetako enpresetakoak, bai eta hornitzaileak ere, baldin eta ezinbestekoa bada haien presentzia.

Azken kasu horietan, ahalegina eginen da haien egonaldiaren iraupena ahalik eta laburrena izan dadin kasuko zerbitzua egiteko, eta aplikatzeak diren osasun-arauak betetik betiere, eta egonaldia betiere eginen da haien segurtasunerako bermearekin, kutsadura-arriskua ekiditeko beharrezkoak diren bitartekoak ezarrita.

Nafarroako Parlamentuko garajera sartzen ahalko dira soilik baimenduta dauden pertsonak eta ibilgailuak, Nafarroako Parlamentuko garajea erabiltzeko arauetan eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2020ko urtarrilaren 20ko Erabakian ezarritakoari jarraituz.

Hedabideak baimenduta egonen dira sartzeko, hurrengo epigrafean ezarritako baldintzetan.

Lehendakartzaren, Mahaiaren, talde parlamentarioen eta parlamentarien elkartearen bulegoetara bisitak egitea baimenduko da, betiere aplikatzeak diren osasun-arauak errespetatuta.

Eraikinean fisikoki egotera behartzen duen beste edozein ezohiko inguruabarrek beharrezkoa izanen du lehendakariaren edo idazkari nagusiaren baimena.

Hori guztia ulertzen da ezertan galarazi gabe Foruzaingoak eraikina zaintzeko egiten duen lana.

Parlamentuko kafetegira osoko bilkurak egin eta taberna-zerbitzua eskaintzen den egunetan sartzen ahalko da. Zerbitzua emateko, Legebiltzarreko langileek emandako jarraibideak bete beharko dira, eta une oro errespetatu beharko dira Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak ezartzen dituen neurriak. Kafetegi-zerbitzua ematean, Nafarroako Gobernuak egoera epidemiologi-

koaren arabera hartzen dituen foru-aginduak hartuko dira kontuan.

Era berean, kafetegia ere erabili ahal izanen da bazkaltzeko orduan, horretarako ezarritako ordutegian, betiere Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak ezartzen dituen jarraibideak kontuan hartuta.

Zazpigarrena.- Hedabideak.

1. Baimena ematen zaie prentsako, irratiko, telebistako eta behar bezala egiaztatutako gainerrako komunikabideetako kazetariari, prentsaurrekoetan, parlamentu-bilkuretan eta gainerrako ekitaldi instituzional edo jarduera parlamentarioetan parte hartzeko.

2. Prentsaurrekoak presentzialki edo bideokonferentzia bidez eginen dira. Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, behar den aurrendenboraz zehaztuko du nola eginen diren.

Bideokonferentziazko prentsaurrekoak streaming bidez eskainiko dira Parlamentuaren web-orriaren bitartez, eta hedabideek modua izanen dute Prentsa Zerbitzuaren bitartez edo, ahal denean, bideokonferentzia bidez, galderak egiteko.

Hedabideak fisikoki bertaratuta eginiko prentsaurrekoak astelehen eta ostegunetan eginen dira, Legebiltzarreko atalondoan. Beharrezkoak izanen dira alde aurreko kreditazioa eta bertaratze-konfirmazioa, gunean segurtasun-neurriak betetzeko egokitzapenak egin eta betiere bertaratze aldera pertsonen artean metro eta erdiko gutxienerako distantzia dagoela. Horretarako, hizlariaren mintzatokiaren aurrean jarriko dira ekitaldirako egiaztatu diren pertsonentzako besaulkiak, distantzia horren arabera.

Aurrez aurreko prentsaurrekoetan mikrofono-in bat jarriko da atarian, komunikabideek galderak egin ditzaten, eta Legebiltzarreko zerbitzuek babesgarria aldatuko diote kazetari bakoitzak esku hartu ondoren.

Halaber, mahai bat prestatuko da, non korrespontsalek gel hidroalkoholikoa izanen duten beren grabazio-tresnak eta eskuak desinfektatzeko, prentsaurrekoa baino lehen eta prentsaurrekoa amaitu ondoren.

3. Osoko bilkuretan edo batzordeen bilkuretan, kazetariak hemizikloko eta batzorde geletako prentsa-kabinetan eta prentsarako guneetan jarri beharko dira, eta Legebiltzarreko langileek emandako jarraibideak bete beharko dituzte, gutxienez metro eta erdiko tarteari eutsiz eta areto bakoitzerako gehieneko edukiera errespetatuz. Erreportari grafikoen kasuan, aretoetara sartzen ahalko

dira, gomendatutako gutxienerako distantzia zainduduz. Halaber, areto bakoitzean baimenduriko edukiera errespetatuko dute eta beren lana egiteko behar duten gutxienerako denboran egoten ahalko dira bertan.

4. Agerraldira bertaratzen diren hedabideek Nafarroako Parlamentuari bermatu beharko diote egiaztatzen duten langileek ez daudela COVID-19ak kutsatuta, eta kutsatuta egonez gero uko eginen diote kasuko langilea ekitaldira bidaltzeari, eta haren orde besterik korrespontsal bat bidaliko dute. Bestalde, osasun-agintaritzaren gomendioak —bereziki eskuen garbiketa, maskara erabiltzea eta segurtasun-distantzia— eta, hala badagokio, Legebiltzarreko zerbitzuek egiten dituztenak bete beharko dituzte.

Zortzigarrena.- Babes-neurri orokorrak.

1. Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak proposatuta eta Legebiltzarreko Segurtasun eta Osasun Batzordeari entzun ondoren Mahaiak erabakitzen dituen babes-neurri orokorrak aplikatuko dira COVID-19arekin kutsatzeko arriskuari aurre egiteko.

2. Aintzat hartuko dira Nafarroako Gobernuak 2020ko ekainaren 19an hartutako Erabakiaren eranskinean ezarritako prebentzio- eta higieneneurriak (2020ko ekainaren 20ko 36. Nafarroako Aldizkari Ofiziala –ale berezia–). Erabaki horren bidez Nafarroako Foru Komunitatea normaltasun berrian sartzen dela deklaratu da eta COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko beharrezko prebentzio neurriak ematen dira, Normaltasun berrirako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren.

3. Edonola ere, pertsonen arteko segurtasun-distantzia mantendu beharko da —metro eta erdi gutxienez— edo, halakorik ezenean, babes-neurri fisiokoak hartu eta maskara erabiliko da, higieneneurri egokiak hartuko dira eta arnas etiketa beteko da.

Maskararen erabilera exigitzen ahalko da, COVID-19 koronabirusak eragindako osasun krisiari aurre egiteko premiazko prebentzio-, euste- eta koordinazio-neurri buruzko ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege-dekretuan ezarritakoaren arabera.

Maskarak erabiltzeari dagokionez uztailaren 15eko 34/2020 Foru Agindua aplikatuko da, zeinaren bidez maskararen erabilerarekin lotutako prebentzio neurriak hartzen baitira Nafarroako Foru Komunitatean, COVID-19ak eragindako osasun krisialdian, betiere Osasun kontseilariaren

uztailaren 17ko 35/2020 Foru Aginduak emandako testuaren arabera.

4. Talde parlamentarioen bulegoetan segurtasun neurriak eta pertsonen arteko gutxieneko metro eta erdiko distantzia mantendu beharko dira. Maskarak beti erabiltzea gomendatzen da. Talde parlamentarioen barneko bilerak egiteko beste areto batzuk erabiltzen ahalko dira, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2020ko ekainaren 1ean onetsi zituen Nafarroako Parlamentuko aretoen erabilerari buruzko arauen arabera.

Lan-jarduera presentzialera itzultzeko protokoloa errespetatu beharreako izanen da aplikatzekoa zaion orotan, bai eta Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak eta Legebiltzarreko Segurtasun eta Osasun Batzordeak gomendatutako segurtasun neurri guztiak ere.

Bederatzigarrena.- Prebentzio-neurriak aurrez aurreko lana egiteko.

1. Langile guztien aurrez aurreko lanean errespetatuko dira une bakoitzean aplikatu beharreko prebentzio-neurriak, lan-ordutegiak eta osasun-agintaritzak pertsonen arteko banantze-distantziak direla-eta ezarritako eskakizunak beteko dituzten espazioak, kutsatzeak saihesteko; halaber, Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak lanpostuen arriskuak ebaluatzeko horretarako prestatutako fitxetan ezarritako gainerako prebentzio-neurri zuzentzaileak beteko dira. Ahal den guztietan, lehenetsia emanen zaio espedienteak elektronikoki izapidetzeari, zerbitzuen artean papera erabiltzea saihestuz.

2. Halere, COVID-19agatik kutsadura-arriskuaren ondoriozko egoerak dirauen bitartean, Legebiltzarreko langileek zilegi izanen dute beren eginkizunak ordutegi-malgutasunez betetzea, telelanen nahiz presentzialki, Plan honek xedatzen duenari jarraituz.

3. Legebiltzarreko langileak behartuta egonen dira Nafarroako Parlamentuko Mahaiak onetsitako Lan-jarduera presentzialera itzultzeko protokoloan jasotako neurriak betetzera.

Hamargarrena.- Telelana.

1. Telelantzat ulertzen da lantokitik kanpoko zerbitzu-ematearen modalitatea, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzearen bitartezkoa.

2. Lanpostuak telelan-araubidepean egon ahalko dira baldin eta haietako jardunak ez badu behartzen jendeari edo bilkura parlamentario presentzialei zuzeneko arreta ematera, enplegatuaren presentzia fisikora, edo kontaktu per-

tsionalak maiz izatera. Betiere, inguruabar horiek epaituko dira zerbitzuaren beharrezanez baldintzaturik.

3. Telelana egiteko, beharrezkoa izanen da Idazkaritza Nagusiak baimena ematea. Baimen horretan zehaztuko da osoki ala partzialki egin daitekeen, kasuko zerbitzuburuak txostena egin ondoren.

4. Telelanen aritzeko baimenak ez du Nafarroako Parlamentuaren egoitzara bertaratzeke betebeharretik salbuesten, langileari horretarako eskaera egiten dionean Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Idazkaritza Nagusiak edo hura atxikita daukan zerbitzuburuak.

5. Nafarroako Parlamentuko telelana egiten da Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen araubide horretako lanaldiaren jarduna eraentzen duten arauak betez. Aipatu arauak 2020ko martxoaren 25eko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean daude argitaratuta.

Hamaikagarrena.- Ordutegi-malgutasuna, lan-txandaren egokitzapena eta ezinbesteko eginbeharragatiko baimena.

1. Ezertan galarazi gabe lanaldi-araubide arruntaren betetzea, 14 urte baino gutxiagoko seme-alabak edo bigarren gradurainoko odolnahiz ezkontza-ahaidetasuneko mendeko edo desgaitasuna duten edadetuak zaintzeko kasuan, etxebizitzan berarekin bizi direnak eta ikastetxe zein zahar-etxeen ixteak ukitu dituenak, Legebiltzarreko langileek zilegi izanen dute bizitza pertsonala eta lanekoa bateragarri egiteko beharrezkoa den ordutegi-malgutasunaz jardutea, bai eta lan-txandaren egokitzapena erabiltzea ere, lanpostuak horretarako modua emanaz gero, aurretiaz Idazkaritza Nagusiari eskaera eginda eta haren baimena lortuta, atxikita daukan zerbitzuburuak txostena egin ondoren.

2. Aipaturiko kasuetan, langileek aukeratzen ahalko dute beren lanaldia 07:30etik 20:30erako denbora-tartearen barrenean betetzea, astelehenetik ostiralera.

3. Kasu horietan, ohiko zerbitzua telelanaren, ordutegi-malgutasunaren edo lan-txandaren egokitzapenaren bidez eman ezin denean, langileek ezinbesteko betebeharrarako baimena hartu ahal izanen dute, aldeztatik eskatuta eta Idazkaritza Nagusiak baimena emanda, atxikipen-zerbitzuko Burutzaren txostenarekin.

Hamabigarrena.- COVID-19arekiko sentiberak diren langileei aplikatu beharreko babesneurriak.

1. Honako hauek pairatzen dituztenek osatzen dituzte COVID-19arekiko talde sentiberak: diabetesa, gaixotasun kardiobaskularra –hipertentsioa barne–, arnas gaixotasun kronikoa, immunoeskasia, edo tratamendu aktiboko faseko minbizia. Halaber, haurdunek eta 60 urte baino gehiagoko adinekoek.

2. Pertsona bat COVID-19arekiko bereziki sentiberatzaile sailkatzeko, Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuko osasun-langileek pertsona hori ebaluatu eta egoki diren prebentzio-, egokitzapen- eta babesneurriei buruzko txostena egin beharko dute. Horretarako, aintzat hartuko dute langilearen osasun-egoeraren berezko arriskua areagotu gabe lan egitea ahalbidetzen duen baldintzarik badagoen ala ez dagoen.

3. Aurrekoa ezertan eragotzi gabe, COVID-19arekiko sentibera diren taldeetakoak diren langileek, edo COVID-19arekiko sentibera diren ahaideekin bizi direnek, zilegi izanen dute, salbuespen gisa, beren lanaldia telelanean beren etxetik betetzea, lanpostuak horretarako modua emanaz gero. Telelana posible ez denetan, langilea bere etxean egotea ezinbesteko eginbeharizat joko da, hamaikagarren apartatuan ezarritako baldintzetan. Horretarako, aurretik, eskaera bat aurkeztu beharko zaio Idazkaritza Nagusiari, eta langilea atxikita daukan zerbitzuburuak txostena egin beharko du.

Hamahirugarrena.- Isolamendu-egoeran dauden langileei aplikatzekoak zaizkien neurriak.

1. Nahitaezko konfinamendu baten edo osasun-agintaritzak aurreikusitako kasuren baten ondorioz isolamendu-egoeran iraun behar duen langileari honako egoeretako bat izanen zaio aplikagarri, lehentasun-hurrenkeran:

a) Telelan-araubideko etxealdia.

b) Nahitaezko etxealdia, ezinbesteko eginbehar bat betetzeko baimenaren babespean.

Horrek guztiak ez du ezertan eragotziko Osasun Zerbitzu Publikoak langilearen lanerako ezintasun iragankorra deklaratzeko. Kasu horretan Parlamentu Zerbitzu Orokorretara igorriko zaie.

2. Isolamendu-egoera bukatu, langilea bere lanpostura itzuliko da, Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak, kasua bada, zehazten dituen egokitzapen- edo babesneurriekin.

Hamabosgarrena.- COVID-19eko positiboan edo isolamenduaren kasuak.

Plan honek indarrean dirauen bitartean Parlamentuko langileen artean ager litezkeen positiboak edo sendagilearen aginduz isolamenduan egon beharrekoen kasuak telefonoz edo posta elektronikoz honako helbide hauetako batean jakinarazi behar da:

- Zerbitzu Orokorretako burutza: 948 209 222 telefonoa edo pcuello@parlamentodenavarra.es helbidera bidalitako posta elektronikoa.

- Idazkaritza Nagusia: 948 209 224 edo sdomenech@parlamentodenavarra.es helbidera bidalitako posta elektronikoa.

Egoera berean dauden foru parlamentariak berehala emanen diote horren berri lehendakariari, posta elektronikoz bidez (presidencia@parlamentodenavarra.es), jakin dezan eta, kasu bada, osasun agintariak gomendatzen dituzten neurriak har daitezke. Horrek guztiak ez du ezertan eragotziko Osasun Zerbitzu Publikoak lanerako ezintasun iragankorra deklaratzeko langileari. Kasu horretan Parlamentu Zerbitzu Orokorretara igorriko da.

Hamaseigarrena.- Parlamentuaren Liburutegiko eta Artxiboko sarrera- eta kontsultaraubidea.

1. Liburutegiaren eta Artxiboaren funtsetarako sartzeko eta haien kontsultatzea ordutegi murriztuan eginen dira, 09:00etatik 14:00etarako denboratartean, komeni denaren arabera ezarritako denboraz eta zerbitzuaren instalazioetan bertako funtzionario bat beti egonda, ahalbideen arabera eta Parlamentuko lan presentzialari buruz ematen diren arauak jarraituz.

2. Bertan behera uzten da erabiltzaileek Liburutegiaren gordailura zuzeneko sarbidea izatea.

3. Liburutegiko funtsen maileguak Legebiltzarreko kideei eta bertako langileei baino ez zaizkie eginen. Itzuli ondoren, funtsak berrogeialdian sartuko dira mailegu edo kontsulta berriak egin aurretik.

4. Liburutegiko funtsen kontsulta, paperean, irakurketa-gelan bakarrik egin ahal izanen da, eta Zerbitzuko langileen bidez kudeatuko da, nahitaez. Kontsultatutako liburukiak, itzuli ondoren, berrogeialdian jarriko dira berriro erabili aurretik.

5. Bertan behera uzten da Legebiltzarren organoetako eta parlamentu-administrazioaren zerbitzuei Artxiboko paper-formatuko dokumentazioa fisikoki mailegatzeko zerbitzua.

6. Paper-formatukoak den Artxiboko dokumentazioaren kontsulta arrunta Zerbitzuak erabiltzaileari helarazitako erreproduzio digitalen bidez egingen da, hark eskatuta. Eskaturiko espediente edo dokumentazioa 20 orrialde baino gehiagokoa izanez gero, Zerbitzuak horren aurkibide bat igorriko dio erabiltzaileari, hark seinala dezan zer zati erreproduzitu beharko diren digitalki.

7. Artxiboko eta liburutegiko funtsak irakurketagelaren aurrez aurre kontsultatzeko, Parlamentuaren egoitzan unean-unean indarrean dauden baldintzak bete beharko dira, edukierari, distantziari eta maskarak eta gel hidroalkoholikoa erabiltzeari buruzkoak. Zerbitzuko langileek eskatuko diete erabiltzaileei baldintza horiek betetzeko, eta zerbitzua bera izanen da kontsulta egiteko postu zehatza adieraziko dutenak. Kontsulta bakoitza amaitutakoan, hura egiteko erabilitako postua higienizatuko da.

8. Bertan behera uzten da erakundeaz kanpoko erabiltzaileen kontsulta presentziala.

9. Une bakoitzean zehazten den zerbitzuko funtzionarioek beste inork ezin izanen du egin Artxiboaren eta Liburutegiaren funtsen erreproduzio digitala. Artxibo eta Liburutegiako sarbidea dagoen egun bakoitzean, zerbitzuburuak zehaztuko du zer pertsonak duen erreproduzio digitalak egiteko ardura, eta zirkunstantzialki suertatzen bada pertsona hori tarte horretan ordeztu beharra, ordezen hori espresuki baimendu beharko da, eta zerbitzuko beste funtzionario batek beste inork ezin izanen du ordezipena egin.

Erreproduzio digitalak egiterakoan, horiek egiteko arduradunak garbituta eduki beharko ditu eskuak eta eskuztaturik suertatzen diren inprimagailu funtzioaniztunaren atalak. Erreproduzioak egin ondoren, gauza bera egin beharko du.

Debekatuta dago Zerbitzuko inprimagailu funtzioaniztuna erabil dezaten Zerbitzuari atxikita ez dauden langileek, eta aurreikusitako ordutegiez kanpo erabiltzea. Murrizketa hori adierazten duen kartel bat jarriko da”.

“Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeari buruzko kontingentzia plana aldatzeko erabakiaren eranskina

LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ZERBITZUAK EGINDAKO GOMENDIOAK ETA PREBENTZIO-NEURRIAK.

1. Eraikineko egoitzetan sartzeko murriztapenari dagokionez: areto bakoitzerako gehieneko edukiera bete beharko da, pertsonen arteko metro eta erdiko gutxieneko distantzia ziurtatu ahal izateko. Gehieneko edukierak areto horien sarreran adieraziko dira.

2. Lan-bilerak, oro har, audiokonferentzia edo bideokonferentzia bidez egingen dira, eta ahal den neurrian aurrez aurreko bilerak saihestuko dira.

Bilera presentzialki egiten den kasuetan, honako neurri hauek hartuko dira horretarako erabiltzen diren aretoei dagokienez:

- Aretoak erabiltzeko alde aurreko baimena eduki beharko da, ziurtatze aldera esleitutako aretoak beharrezko edukiera daukala, halako moduz non bertaratutakoek pertsonen arteko metro eta erdiko distantzia mantendu ahal dezaten.

- Areto bakoitzeko gehieneko edukiera seinaleztatzea.

- Barruan, pertsonen arteko metro eta erdiko distantzia ziurtatzeko bete behar diren postuak seinaleztatzea, eta bete ezin diren aulkiak kentzea.

- Bilera bat baino gehiago eginez gero, gela garbitu eta desinfektatu beharko da, bileratik bilerarako tartean.

3. Kafetegia erabiltzeko aukerari dagokionez, Parlamentuko kafetegira osoko bilkurak egin eta taberna-zerbitzua eskaintzen den egunetan sartzan ahalko da.

Zerbitzua emateko, Legebiltzarreko langileek emandako jarraibideak bete beharko dira, eta une oro errespetatu beharko dira Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak ezartzen dituen neurriak. Kafetegi-zerbitzua ematean, Nafarroako Gobernuak egoera epidemiologikoaren arabera hartzen dituen foru-aginduak hartuko dira kontuan.

Gaur egun, honako gomendio hauek beteko dira:

- Ezin izanen da gainditu baimenduriko edukieraren % 75.

- Kontsumoa barran edota mahaian edo mahai-elkarteetan egiten ahalko da, betiere pertsonen arteko segurtasun-distantzia mantenduta

barran edota mahaietan edo mahai-elkarteetan dauden bezeroen edo bezero-taldearen artean. Mahaietan metro eta erdiko distantzia fisikoa mantentzen dela ziurtatu beharko da.

- 12:00etatik aurrera, soilik kontsumitu ahal izanen da mahai batean edo elkartutako mahaietan eserita.

- Mahaiak ezin izanen dira sei pertsona baino gehiagokoak izan, eta segurtasun-tartea gorde beharko da.

- Maskararen erabileraren kontrola zorroztu da eta pertsonen arteko distantzia mantenduko da.

- Ibilbide bat ezartzea gune jakin batzuetan pilaketak saihesteko eta bezeroen arteko kontaktua prebenitzeko; horretarako, ateetako bat sarrera gisa izendatuko da, eta bestea irteera gisa.

- Sarrera baino lehen gehieneko edukiera seinaleztatu behar da .

- Osasun Ministerioak baimendutako eta erregistratutako girotze-jardueradun gel hidroalkoholikoak edo desinfektatzaileak erabiltzaileen eskura jartzea lokalaren sarreran.

- Zerbitzua ematen duen pertsonak adierazitako mahaiak okupatu beharko dute erabiltzaileek.

- Mahaietan zerbitzua ematen duten langileek bezeroarekiko segurtasun-distantzia bermatu beharko dute, eta kutsatzeko arriskua saihesteko beharrezkoak diren higiene- eta prebentzio-prozedurak aplikatu.

- Zerbitzatzen diren mahaietan eskatu eta ordainduko dira janari-edariak, eta horretarako ez dira barrara hurbilduko.

- Bezero baten eta bestearen artean, mahaiak, aulkiak eta beste edozein ukipen-azalera garbitu eta desinfektatu beharko dira.

- Lokala gutxienez egunean behin garbitu eta desinfektatu beharko da.

Era berean, kafetegia erabili ahal izanen da bazkaltzeko orduan, horretarako ezarritako ordutegian, betiere Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak ezarritako honako jarraibide hauek kontuan hartuta.

- Baimenduriko edukiera errespetatzea.

- Eskuetako higiearen garrantzia gogoraztea.

- Pertsona bakoitzak bere tresnak erabiltzea gomendatzen da.

- Erabilitako guztia desinfektatu behar da, erabili aurretik eta ondoren, efektu biruzida duten produktuekin (ministerioko produktuen zerrenda kontsultatzeko: https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/Listado_virucidas.pdf)

- Maskara eraman beharko da, eta hori kendu ahal izanen da elikagaiak edo edariak hartzeko.

- Atea irekita egonen da beti.

4. Hedabideen presentzia fisikoarekin egindako prentsaurrekoei dagokienez, erabili ondoren materiala garbitu beharko da.

5. COVID-19a dela-eta kalteberak diren langileei aplikatu dakizkiekeen babes-neurriei dagokienez: laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuari jakinaraziko zaizkio kolektibo kalteberetako kide izan eta lanera presentzialki itzuli nahi duten langileak, SARS-Cov-2-aren esposiziorako Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuei emandako 2020ko maiatzaren 22ko Jarduketa Protokoloari jarraituz.

6. Parlamentuko Liburutegian eta Artxiboan aurrez aurre kontsultatutako materialari dagokienez, erabilitako dokumentu eta materialen hiru eguneko berrogeialdiei buruz emandako gomendioak kontuan hartu beharko dira:

Nolanahi ere, Osasun Ministerioak eta NOPLOik ezarritako eta une bakoitzean aplikatzen diren neurriak hartuko dira kontuan, egoera epidemiologikoari eta normaltasun berri baterako trantsizio-planaren faseei dagokienez”.

2. Erabaki hau sinatzen den unean jarriko da indarrean, eta Mahaiak zehazten duen arte iraunen du. Edonola ere, Plan honetan aurreikusitako neurrien etengabeko jarraipen eta ebaluazioa egiten da, unean uneko egoera epidemiologiko eta sanitarioari egokitzen zaizkiola bermatzeko.

3. Erabaki hau hurrengoei jakinaraztea: foru parlamentariari, Legebiltzarreko langileei, Foruzaingoari eta Nafarroako Gobernuari.

4.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Osoko bilkuren aretora publiko gisa joateko gonbidatu-txartelen banaketa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 79. artikulua arautzen du publiko bilkura-aretoa joateko aukera, eta ezinbesteko baldintza gisa ezartzen du gonbidatu-txartela aurkeztea. Txartela talde parlamentarioen bidez eskuratuko dute, talde bakoitzak duen kide-kopurua eta publikoarentzat gorderik dagoen tokia kontuan hartuz Lehendakaritzak egindako banaketaren arabera. Ordea, COVID-19 koronabirusari aurre egiteko euste-neurrien artean onetsitako gehieneko kopuruen ondorioz, gordetako tokia murriztu egin da.

Horrenbestez, honako hau ERABAKI DA:

1. Mahaiko zein Eledunen Batzarreko kide bakoitzak osoko bilkuren aretora publiko gisa joa-

teko gonbidatu-txartel bana izan dezan. Hori dela eta, honako hau izanen da talde parlamentario bakoitzak edukiko duen gonbidatu-txartelen kopurua:

Navarra Suma talde parlamentarioak: hiru gonbidatu-txartel.

Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek: bi gonbidatu-txartel.

Nafarroako Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak: gonbidatu-txartel bat.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko bost kideen hautaketa.

AKATS ZUZENKETA

Akats bat aurkitu da Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2020ko irailaren 28ko eta 2020ko urriaren 5eko erabakien testuetan, zeinen bidez luzatzen baitzen Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko bost kideak aukeratzeko hautagaitzak aurkezteko epea, eta 2020ko urriaren 1eko 104. eta 2020ko urriaren 7ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialetan argitaratu baitziren. Hona hemen zuzenketa:

Honako hau dioen tokian:

“Nafarroako Gobernuak idazki bat aurkeztu du, zeinean eskatzen baitu luza dadin Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko

Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko bost kideak aukeratzeko hautagaitzak aurkezteko epea”.

Honako hau esan behar du:

“Talde parlamentarien eta foru parlamentarien elkartearen eledunek idazki bat aurkeztu dute, zeinean eskatzen baitute luza dadin Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko bost kideak aukeratzeko hautagaitzak aurkezteko epea”.

Iruñean, 2020ko urriaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testuategina aldatzeko proposamena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde mistoak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testuategina aldatzeko proposamena aurkeztu dute, eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 153. artikuluan eta seigarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Osoko Bilkuraren esku jartzea Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testuategina aldatzeko proposamenaren izapidetzea zuzenkoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia (10-20/OTL-00001).

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, zeina bukatuko baita eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testuategina aldatzeko proposamena

ZIOEN AZALPENA

Parlamentu demokratikoen erabakiak kasuan kasuko herriaren borondatearen agerpen dira, zeinak, bere ordezkarien bitartez, berarengan eragina duten gai politikoetan parte hartzen baitu, eta errealitatearekin konektatuta egon behar baitute une oro.

Nafarroako Parlamentuak dauzkan tresnetako bat dira, jarduera parlamentarioaren parterik handiena hartzen duten legegintzako ekimenez eta eztabaida politikoez gain, adierazpen politikoak, zeinak Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan jasotzen baitira eta ahal den neurrian jasotzen baitute, agerpen baten bidez, Parlamentuak zer iritzi duen gaurkotasuneko egoerei, gertakariei edo gertakizunei buruz, herritarrei helaraztearren Parlamentuko taldeek zer uste duten, Nafarroako gizartea eraikitzen den balioetan oinarrituta, horrek ondorio juridikorik izanen ez badu ere.

Gizarteari Parlamentua osatzen dugun guztion jarrera helarazi behar diotenez, adierazpen horiek, alde batetik, ahobatezkoak izan behar dute edukiari dagokionez, eta, bestetik, horien edukiak salbuespenezkoa izan behar du: izan ere, munta handia du Nafarroako Parlamentuak ordezkatzeko duen gizartean esku hartzeak. Alabaina, ikusita azken urteotan adierazpen politikoak inprobisazioz aurkezten direla eta ikusita nola onesten diren, adierazpenak babesten dituzten taldeen posizionamendu politiko bihurtu dira de facto.

Hortaz, adierazpenak aho batez onetsi behar dira, Nafarroako Parlamentuak transzendentzia politikoko auziei buruz helarazi ditzan pitzadurarik gabeko iritzia eta posizionamendua, nafar herritarrek demokratikoki hautatutako ordezkarien bidez

adierazitako iritzi orokorra islatuko dutenak. Hartara, egiaz izanen dira adierazpen instituzional.

Halaber, interpelazioak kasuko Osoko Bilkuraren gai-zerrendaren barruan sartzeari buruzko egungo erregulazioaren arabera, lehentasuna ematen zaio interpelazioak aurkezteko hurrenkari.

Legegintzaldi bakoitzean diren talde parlamentarioen edo foru parlamentarien elkarteen jarduera parlamentarioaren ekitatea lortzearen, jardun parlamentarioa irekitzeko egoki da lehentasun-hurrenkera hori kentzea.

Seigarren xedapen gehigarriaren indarrez, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren

testu bateginaren honako aldaketa hau proposatzen da.

Lehen artikulua. 44.6 artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“6. Adierazpen instituzionalak aho batez onestea”.

Bigarren artikulua. Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 185. artikuluen 2. apartatua kentzen da.

Azken xedapena.

Aldaketa honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra. Nafarroako Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da.

